

Gainera, harremanetan zegoen garai hartako geologo, zoologo eta botanikari ospatsuenekin.

Ihardun emankor honen emaitzarik preziatuena, *Espezieen jatorriaz* (1859) dalako liburua dugu. Bertan, Eboluzioaren teoria agertzen zuen, ondoko puntuotan laburbil genezakeena: 1) Espezie desberdinen ale-kopuruek nahiko konstante diraute Naturan. 2) Bizidunen ugalkortasuna, kopuru iraunkor horiek mantentzeko premiazkoa dena baino handiagoa da. 3) Beraz, hilkortasun nabariak egon behar, berau «bizitzagatiko burruka»ren ondorioa delarik. 4) Espezie bakoitzeko aleak ez dira elkarren zeharo berdinak, aldaki txikerrak (anatomikoak, fisiologikoak, etc.) bait dituzte. 5) Aldaki hauek heredagarriak bide dira; beraz, eta «hautespen naturala» dela kausa, aldaki abantailosoak gorde egingen dira, besteak iraitzen direlarik. 6) Hurrengo belaunaldietan aldaki abantailosoak metatuz doazke, ingurunera hobeto moldatuz. 7) Hortaz, leku desberdinetako baldintza berezietara bizidunak desberdinki moldatzean, espeziazioa ematen da.

Bazegoen zenbait puntu ilun teoria honetan, herentziaren arazoaren aldetik esate baterako (berauek Mendel-en lanak argituko ditu). Hala ere, lanabes erabilgarria bihurtu zen orduan, fenomeno ulergaitz asko eta asko azaldu egiten bait ziren beraren baitan. Mundu biziaren printzipio bateratzailea zen. Gaur egun, Eboluzioaren teoria sintetikoak (Neodarwinismoak) gaindituta dago.

Baina teoria hark Biologiarako eite modernoa zekarren aldean. Batetik, bizidunen populazioekin egiten du lan, ez ale solterekin, eta oso garrantzi handia ematen dio inguruneari. Bestetik, zera: aldakiak zoriz (azarean) gertatzen dira, eta ez inolako xede edo intentziopean; ondoren, inguruneak, bahe bat balitz bezala, hobekien moldatuak faboratzen ditu. Hau da, feed-back baten bidez erregula daiteke sistema osoaren iraunkortasuna.

*Espezieen jatorriaz* liburuaren argitarapenak polemika garratz luzea sortu zuen, maiz, arazo zientifikoak ukitu beharrean, teologiko eta politikoak eztabaidatzen zirelarik. Izan ere, hiru mende lehenago Kopernik-ek bezala, eztanda izugarria eragin zuen Charles Darwin-ek. ■ *Kepa Altonaga.*

## Don't cry for me, Argentina!

Aste batzuk igaro dira eta Falklands edo Malvinak irletako gerratea amaitu da: Argentinak galdu du gerra hori. Armen zatarekin batera, eskierki gogor eraso izan zaio Ingalaterraren

kolonianismoari, eta ez naiz ni hasiko hemen Estatu eta Monarkia horren «garbitasun» kolonialistak defendatzen. Lotsakizun litzateke nornahirentzat ere. Baina zilegi bekit X. Kintanak *Egin-en* esandakoei neure azpimarra ezartzea.

«Galtieri deitura duenak bere amona Machu Pichun jaioa» ote du, galdetzen du Kintanak. «Amerikar bizilagun jatorren atzoko (eta gaurko gehituko nuke nik) kolonialistak, indioak zapaldu, esklabutu, hil eta maparen eremu askotatik kulturaz, hizkuntzaz eta arrazaz ere desagertetazi dituztenak, beren oraingo heredero zuzenen ahoz ingelesei kolonialista eta inperialista esaten ari» ote litezke?

Gaurregun (eta betidanik), eguzkiaren argia ukatzen ibiltzea izango litzateke Ameriketako krioioleok ezarri zuten, eta ezartzen duten, genozidioa ukatzea. Amerika kolonialean eta independentean berdintsu izan da: Indioak Amerikaren etorkizuna galtzen 1492an hasi ziren eta geroztik maldan behera izan izan da beti horien itzaropena.

Euskaldunak ere ez dira, oro har, indioen eta haien kulturaren askatzaile gertatu. Gure indiano arunten ondoan, izan genituen gure arma-gizonak eta lege-gizon kolonialistak ere. Espainiak mendetan erabilitako Indietako Lege-liburua Diego de Enzinas nafarraren *Cedulario Indiano* (1596) izan zen. Baina itzul nadin Argentinara.

Argentina beti ikusi edo sentitu izan dugu, Estatu «zuria» eta indiorik gabekoa bezala. Hala ere, ez da hori guztiz egia sekula izan, eta Independentziaren egunetan ere Askatzaileak (San Martin, Belgrano, etab.) arduratu ziren arazoaz, beti ere krioiloen interesak zainduz izan bazen ere, Amerika «librea», indioentzat, ez baita hain librea izan.

Argentina-ri bere bandera eman eta Independentzia hain bortizki defendatu zion Manuel Belgrano-k (1770-1820), adibidez, ez zuen lotsa eta zalantzarik izan herrialde hartako jatorrizko bizilagunen hizkuntzei mugak, hesiak eta zurien komentzien arabera legeak ezartzeko. Bidezkoa da Independentzi unean ere legearen lehentasunak zeren alde eta zeren kontra eman ziren gogoratzea.

Argentinan Belgrano haundiak honela agindu zuen «Reglamento para los naturales de Misiones» (probintzia) deituan:

«Aunque no es mi ánimo desterrar el idioma nativo de estos pueblos; pero como es preciso que sea fácil nuestra comunicación, para el mejor orden prevengo que la mayor parte de los cabildos se han de componer de individuos que hablan el castellano, y particularmente el corregidor, el alcalde de primer voto, el síndico procurador y un secretario que haya de extender las actas

en lengua castellana» (Art. 19). «En cada capital de departamento se ha de reunir un individuo de cada pueblo (...) para elegir un diputado que haya de asistir al congreso nacional, bien entendido que (...) ha de saber hablar el castellano (...)» (Art. 23).

Harremanak ondu eta xamurtzeko, ez zuten «Askatzaile» haiek indioen hizkuntzak ere ikasi zitezkeenik pentsatu, edota Buenos Aires-en hizkuntza «arrotz» haiek ere eskubiderik izan zezaketenik. Bestelakorik gertatu balitz, gainera, anakronia eta ukronia ere izan zatekeen. Eta horrela egin da, beraz, Amerika, europarren Amerika kriiloa, Malvinetako gerrate honetan hainbeste aipatu diren «eskubide historikoen» antzeko eta hobego asmo ongi ahaztu eta baztertu ondoren, alegia. ■ *Joseba Intxausti.*